

Antxiñako fotografixia



Aspalditxoko belena

Gabonetan jaiotzak edo, Oñatin esaten dan lez, **belenak** jarteko ohitturia oso zuztartuta euki izan dogu gure artian. Elizetan eta eskoletan egoten ziran ederrenak, baiña etxe partikular askotan be ifintten zittuain negu-hasierako jai tradizional honeittako irudi tipiko horreik: **Jesus jaixo barrixaren inguruan, Ama Birjiñia, San Jose, astua, idixa, aingeruak, artzaiñak, hiru errege maguak** (Meltxior, Kaxpar eta Baltasar) euren **paje laguntzailliekin**, eta abar. Lehen adiña izan ez arren, orainddiok be ohitturiorrek gure herrixan jarraikatan dauela uste dogu.

Gure ume-denporan **belenik bistosuena ospittal zaharreko parbularixuan** moldaitten euen urtero karidadeko mojak. Eraikuntza historiko ha orain R. M. Zuazola institutuak okupaitten dauen orubeian kokatu zan 1960ko hamarkadiaren azkenaldira arte. Beti jaiotza haundixa eta dotoria egoten zan bertan, baiña urte batzuetan are ederragua montau eben **Bitoriano Beitia Kortakogain** oñatiarrak. Ohiko irudixaz gain **ikusgarrixak** izaten ziran Bitoriano artetsuak asmautako **errotia**, ur-salto, erreka eta guzti, edota boldaan bueltaka ibiltten zan **idi-paria**.

Baiña gaurko argazkixa be berezixa da. Larogei urte pasa eukiko dittu eta erakusten doskun **belena biziduna** da. Tama-lez eta asti faltaz eztogu banaka batzuk baiño identifikaitterik izan: Kale Zaharreko **Mari Tere Arregi** eta **Andina Arrazola**, Kale Barriko **Trini Mendizabal**, Atzeko kaleko **Korkostegitar** bat... Hala eta guztiz be, gabon-egun honeittarako ego-gixa dalakuan, orain argittaraketia erabagi dogu. Gaiñera zuek be besteren batzuk ezagutu dittuzuela pentsaitten dogu eta danon artian informaziñua hobeto osotu leikiela.

J. E.

Fotografixia Mari Tere Arregik eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Mari Tereri ez ezik Maixabel Elortza eta Rufino Oruetari be zor xaugu. Milla esker.